



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

BIZKAIKO HAUR ABESBATZAK: HEZKUNTZA EZ-FORMALETIK ESKOLARA

Egilea: Imanol Gamboa Eguia

Zuzendaria: Gotzon Ibarretxe Txakartegi

Leioan, 2017ko maiatzaren 29an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	5
1.1. Euskal koralismoaren jatorria eta bilakaera	5
1.2. Abesbatzen egungo egoera	6
1.3. Abesbatza eta eskola	7
1.4. Abestearen onurak	9
1.5. Abesbatza Lehen Hezkuntzako curriculumean.....	10
2. Metodologia	12
2.1. Helburu eta hipotesiak	12
2.2. Diseinua eta prozedura.....	12
2.3. Lagina	14
3. Emaitzak eta eztabaida	15
3.1. Bizkaiko ikastetxeetako webguneen analisia.....	15
3.2. Bideoen analisia	16
3.3. Galdeketen analisia eta interpretazioa	18
3.4. Hipotesien inguruko eztabaida.....	21
4. Ondorioak eta prospektiba	22
4.1. Etorkizunerako proposamenak.....	23
Erreferentzia bibliografikoak.....	25

BIZKAIKO HAUR ABESBATZAK: HEZKUNTZA EZ-FORMALETIK ESKOLARA

Imanol Gamboa Eguia

UPV/EHU

Ikerketa lan honen helburua Bizkaiko haur abesbatzen egungo egoerari buruzko informazioa jasotzea da, Lehen Hezkuntzatik abiatuz, egoera hobetzeko ideiak proposatzeko asmoz. Horretarako, probintziako ikastetxeetako jarduera koralarren eskaintza aztertu dugu web orrialdeen bidez, abesbatzen emanaldien ikus-entzunezko materialen analisia egin eta zuzendariei galdeketa egin zaie egoera barrutik ezagutzeko. Emaitei begira, esan daiteke errotze kultural handia izan duen euskal abesbatzen jarraipena kolokan dagoela haur abesbatzen eskasia dela eta. Badaude hainbat talde eremu formal zein ez-formalean ondare horren alde lan egiten dihardutenak. Dena den, hezkuntzako eremu formalaren bidez jarraipen hori sustatu ahalko litzateke.

Kantu korala, haur abesbatza, euskal kultura, Lehen Hezkuntza, hezkuntza ez-formala

El objetivo de este trabajo de investigación es recoger información de la realidad coral infantil actual de Vizcaya, proponiendo ideas de mejora desde la Educación Primaria. Para ello, hemos analizado la oferta coral de los centros educativos de la provincia mediante sus páginas web, hemos examinado materiales audiovisuales de las actuaciones de los coros y se ha realizado un cuestionario a los directores para conocer la situación desde dentro. Respecto a los resultados, se puede decir que la continuación de los coros vascos, que han tenido tanto arraigo cultural, es incierta, dada la escasez de los coros infantiles. Existen varios grupos tanto en el ámbito formal como en el no formal que trabajan a favor de ese patrimonio. De todos modos, se podría potenciar esa continuación mediante la educación formal.

Canto coral, coro infantil, cultura vasca, Educación Primaria, educación no formal

The aim of this research is to collect information about the current reality of children's choir in Biscay, in order to propose ideas of improvement through Primary Education. To do so, we have analysed the offered training courses of choir in educational centres of the province by means of its web, we have examined audiovisual materials of choirs' performances and a questionnaire has been made to conductors in order to get to know the situation from within. Regarding the results, it can be said that the continuation of Basque choirs which has been so deeply rooted in culture is now unforeseeable, due to the shortage of children's choirs. There are, however, several groups both in the formal area and in the non-formal which work in favour of that heritage. Nevertheless, that continuation could be fostered through formal education.

Choral singing, children's choir, Basque culture, Primary Education, non-formal education

Sarrera

Musikak oinarrizko eginkizuna dauka haurren garapenean eta pertsonengan orokorrean. Izan ere, belaunaldiz belaunaldi eta kulturaz kultura transmititu egiten da gure sustraien ikurra izanik. Hain zuzen ere, diziplina hori garatzeko erabateko modua euskal gizartean erroturik iraun duen kantu korralaren praktika da. Hari esker, norbanakoak espresioa, komunikazioa, sozializazioa eta inklusioa lantzeko aukera dauka, betiere eduki musikalak zein beste hainbat diziplinetakoak ere barneratuz. Beraz, egungo ikastetxeetan eskatzen den hezkuntza globalari erantzuten dio.

Dena den, ikerketen emaitzek azaleratzen duten bezala, haur abesbatzen eskasia dela eta praktika korala galduz doa, harekin batera euskal ondarearen parte izan den elementu oso garrantzitsua eramanez. Hori dela eta, lan honen bidez, Bizkaiko abesbatzen mundua eta probintziako Lehen Hezkuntzako alderdi formala harremanetan jarri nahi dira, kulturako atal horren jarraipena bermatzeko helburuarekin.

Izatez, eskola haur eta gazte guztien ingurune naturala da eta denen eskura dagoena. Horregatik, haurrak hartara erakartzeko beharrik ez dagoenez, kantu korala eta haur abesbatzen mugimendua sustatzeko espaziorik aproposena bihurtzen da.

Honengatik guztiagatik, lanaren helburua lortzeko asmoz, hurrengo orrialdeetan Bizkaiko haur abesbatzen egoeraren inguruan diharduen ikerketa etnografikoa planteatzen da, hezkuntza munduan izan dezakeen trataera aztertuz. Ikerketa lanean, uztarpen hori aztertzeke asmoz, alde batetik, probintziako eskoletan dagoen jarduera korralaren eskaintza aztertu da. Beste alde batetik, federatutako zein ikastetxeetako hainbat abesbatzen emanaldien ikus-entzunezko materialen analisisa burutu da. Azkenik, Bizkaiko egoeraren ikuspegi zehatzagoa eta pertsonalagoa izateko, abesbatzen zuzendariekin solasean aritu gara praktikari buruzko arlo desberdinen inguruan.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

1.1. Euskal koralismoaren jatorria eta bilakaera

Sarritan herri euskalduna jai, erritu, espresio artistiko edota musikalen moduko identitate kontuekin erlazionatu izan da. Hain zuzen ere, euskal eremuan kantu korala eta abesti tradizionala errotze handiko gaitzat hartu izan dira eta ondorioz, euren interes kulturala zalantzaezina bihurtu da (Ibarretxe, 2003).

Berez, euskal koralismoaren jatorria eta baita Espainiar Estatukoa ere XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera antzeman daiteke, garaiko egoera politiko, ekonomiko eta sozialean emandako sentimendu erromantikoaren hedapenaren zein industrializazioaren sorreraren ondorioz (Bagüés, 1993; Fernández, 2013). Hain zuzen, estatuko industria guneetako hirigune garrantzitsuenetan langile ugari bildu ziren, eta jendetza horrek lanordu amaigabeen ostean behar izandako aisialdirako espazioen eskariaren aurrean, lehenengo elkarte herrikoiak sortzen hasi ziren, geroago orfeoiak izaten bukatuko zutenak. Talde horiek ahots grabe kopuru handi batez soilik osaturiko orfeoiak ziren eta euren jatorri sozio-ekonomikoa antzerakoa zen orokorrean (Ibarretxe, 2007; Fernández, 2013).

Bilakaerari dagokionez, Ibarretxek (1999) hiru aldi bereizten ditu euskal koralismoan. Lehenik, aipaturiko orfeoien sorkuntza aldia topatuko genuke, XIX. mendearen erditik XX. mendearen lehenengo hamarkadara arte iraun zuena. Bertan, Euskal Pizkundearekin batera, abesteko helburuarekin sorturiko elkarteak aurki ditzakegu hainbat hiriburutan. Esaterako, horren eredu dira *Bilboko Orfeoia* 1886an, *Donostiako Orfeoia* 1897an edota *Iruñako Orfeoia* 1892an (Bagüés, 1993; Ferrer, 2001; Carbonell, 2003).

Bigarren aldian, Sabino Aranaren heriotzarekin batera, orfeoi eta abesbatzen gorakada handia eman zen, Eusko Alderdi Jeltzalearen irudiari laguntza eskainiz alderdiko hainbat ekitalditan. Izatez, aldi honetan emakumezkoen agerpena azpimarratu beharko litzateke orfeoien barruan (Bagüés, 1993). Hortik aurrera, gerra garaian, abesbatzen mugimendua erresistentzia kultural modura jarraitu zuen. Horren adibiderik garbiena, Agirre lehendakariak bultzaturiko *Eresoinka Abesbatza* dugu, Gabriel Olaizolaren zuzendaritzapean euskal kultura zabaldu zuena estatuko mugetatik kanpo. Hori dela eta, gerraostera arte iraun zuen garai hura, ideologizazio nazionalista baten menpe egondako

alditzat har dezakegu, non abesbatzen jarraipena parroketako ekintzen bidez mantendu zen.

Bukatzeko, hirugarren aldia Vatikanoko II. Kontzilioarekin hasten da pasa den mendearen erdialdean. Haren ondorioz, elizkizunetan erabilitako musikak aldaketak pairatzen ditu eta aipaturiko gerra garaiko jarraipena kaltetu egiten da, abesbatza askoren desagertzea ekarritik. Egoerak ez du hobera egiten 70. eta 80. hamarkadetan euskal erakunde autonomikoak eta abesbatzen federazio probintzialak sortu arte. Horien eskutik, abesbatzen krisia konpontzeko asmoz, ondorengo arloak sustatzeko lanetan hasi ziren: abeslarien eta zuzendarien formakuntza ikastaroak, erreperitorioaren berrikuntza planak edota espazio musikal berrien bilaketa.

Bestalde, nabarmentzekoa da sorturiko elkarte horiek musikaren hedapenean burututako lana, hezkuntza musikala herritarrei akademien bidez eskainiz (batzuetan doan). Izan ere, hainbat koral elkartek abeslariarentzako solfeoa eta ahots hezkuntza eskaintzeaz arduratu ziren eta aldi berean, haur orfeoien sorkuntza sustatu zuten eskolen kolaborazioarekin (Ferrer, 2001).

1.2. Abesbatzen egungo egoera

EAEko haur abesbatzen kopurua helduen abesbatzena baino askoz ere eskasagoa izan da betidanik. Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak 2002an jasotako datuen arabera (Ibarretxe, 2003), abesbatza kopuruen datuak honakoak ziren:

	Abesbatzak	Haur abesbatzak
Araba	51	18
Bizkaia	116	20
Gipuzkoa	101	32

Gaurkoan, ordea, 2017an hiru probintzietako abesbatzen federazioek eskainitako datuen arabera, egoerak, orokorrean, okerrera egin duela ikus daiteke. Hain zuzen, haur abesbatzen jaitsiera %66koa eta %35koa izan da, hurrenez hurren, Araban eta Bizkaian. Gipuzkoan, aldiz, ez da inolako aldaketarik sumatu.

	Abesbatzak	Haur abesbatzak
Araba	34	6
Bizkaia	168	13
Gipuzkoa	111	32

Taulen konparaketan ikus daitekeenez, abesbatzen kopuruak, orokorrean, gora egin du haur abesbatzen kopuruak behera egin duen bitartean. Izatez, desorekarik handiena Gipuzkoan eta Bizkaian antzeman daiteke. Autore berak dioenez, gabezi horren zergatia hezkuntzaren testuinguru orokorrean kokatu beharra dago, non jarduera koralaria lekua bilatzea (normalean eskolaz kanpoko ekintza modura) geroz eta zailagoa bihurtzen ari den haurren ordutegi murriztagatik.

Hala ere, badira hainbat erakunde haur abesbatzen jarraipenaren alde gogotsu dihardutenak. Horien artean ditugu, adibidez, abesbatzen federazio probintziales antolaturiko zuzendaritza eta pedagogia ikastaroak, *Tolosako Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketak* haur abesbatzei eskainitako modalitatea, sektore horrentzako sorturiko eta publikaturiko errepertorio berria edota *Eresbil* euskal musikaren artxiboak zabalduko musikagile euskaldunen lana (Ibarretxe, 2003).

Edonola ere, Elizasuk (2005) dio nahiz eta federazioek hasieratik zuzendarien prestakuntzan egondako hutsune hori bete nahi izan, antolaturiko ikastaroak 4-5 egun baino ez dutela irauten gehienez. Hori dela eta, zuzendaritzarekiko lehenengo kontaktu bat izateko edota hobekuntzarako baliagarriak dira, baina ezin daitezke EAEko zuzendarien oinarri bakarra izan.

1.3. Abesbatza eta eskola

Eskola bateko abesbatzaz dihardugunean, abesteko nahiarekin biltzen diren zentroko neska-mutilen talde bati egiten diogu erreferentzia (Arroyo, 2010; Fernández, 2013). Horregatik, Pascualek (2002) dioten bezala, ezin dezakegu eskolako abesbatza eta eskola orduetan landu beharreko ahots hezkuntza nahastu. Berez, estatu mailan ohikoena mota horretako taldeak eskola orduetatik kanpo batzea izaten da, bai jolastordu zein eskolaz kanpoko ekintzen bidez (Fernandez, 2013), eta euren jarduera zentroko ekitaldietara murrizten da, hortik kanporako inolako ikusmirarik gabe (Arroyo, 2010).


Hala ere, gaur egungo gizarteko ohitura kulturean eman den aldaketa progresiboa dela eta, kantu koralarren moduko ohitura tradizionalak baztertuta geratu dira (Ibarretxe, 2004). Horren ondorioz, mota horretako ekintzen kopurua jaitsiz joan da, ikasleen adinak gora egin ahala (Camara, 2004). Gainera, Alberto Grauk (2009) defendatzen duen bezala ez da harrizkeoa kantu koralarrekiko jarrera horrelakoxea izatea, mundu mailan musika hezkuntzari emandako garrantzia antzekoa izanik. Praktika entretenigarri

modura ikus daiteke, baina aldi berean ekarpenik gabekoa eta balio akademiko gutxikoa (Camara, 2003).


Beraz, bai eskola eremuan zein horretatik kanpo ikusi dugun jarduera tradizional honen narriadura kontuan hartuz, Erauskinekin (1983) bat egiten dut: euskal ohitura honen jarraipena ikasketa zentroen bidez bultzatu beharko litzateke, sorturiko harrobiek etorkizuneko koralismoa mantendu dezaten.

Hain zuzen ere, Ibarretxeren (2007) ikerketan ikus daitekeenez, EAEn badira hezkuntza formala eta ez-formala uztartzen dituzten hainbat eredu erabilgarri. Horien artean ditugu, esaterako, Gipuzkoan Donostiako *Orfeoi Txiki* edo *Orereta Abesbatza* (Errenteria), Bizkaian *Bilboko Koral Elkarteko Haurren Abesbatza* eta Araban *Luis Dorao-Unamuno Abesbatza*. Erakunde horietan haur eta gazteen formakuntza koralerako proposamena burutzen da, etorkizunerako harrobia sortzeko asmoarekin. Era horretan, erakundeak berak haren atak zabaltzen ditu formazioa eskainiz eta, aldi berean, haren jarraipena ziurta dezaketen abeslariak hezten ditu.

Gure kasuan, Gipuzkoakoak (aipaturiko biak) eta Arabakoa hartuko ditugu eredu gisa, hiruretan ikastetxe edo ikastolekin elkarkidetzan aritzen baitira. Gipuzkoarren kasuan, zuzendariak dira udalerriko ikasketa zentroekin harremanetan jartzen direnak eta ahots berriak bilatzeaz arduratzen direnak. Zentroein ekintza eskaintzen diete, antolakuntza guztia ordainduz, eta sorturiko taldeetatik erakundeko abesbatzetara pasatu daitezkeen abeslariak hautatuz doaz. Modu horretan, eskola inude-abetesbatzak sortzen dituzte (1. irudia). Arabarren kasuan, ordea, proiektu pedagogikoaren azken helburua abesbatza sortzea da. Horretarako, kultura elkarteak kantu koralararekin erlazionaturiko jarduera eskaintzen du hainbat ikastetxetan eta sorturiko talde guztiak batu egiten dira talde bakar eta handi bat sortzeko (2. irudia). Honetan ere, eskola inude-abetesbatzen eredu antzeman daiteke proiektuaren oinarri gisa.



1. Irudia: eskola inude-abetesbatzen eredu (Ibarretxe, 2007)



2. Irudia: proiektu pedagogiko erako abesbatza (Ibarretxe, 2007)

Bestetik, nabarmentzekoa da gurasoen ikuspegia hurrek ekintza koraletan parte hartzera animatzen direnean. Izan ere, jarduerarekiko gurasoen jarrera positiboak seme-alaben aukeraketan eragiten du (De la Cuevas, 2009).

1.4. Abestearen onurak

Musika egiteak berezko balio bat dakar, norbanakoak aurrez jarrera zehatz bat hartzera bultzatzen gaituena. Hain zuzen, abesbatza baten parte izanik benetako ikaskuntza testuinguru batean murgiltzen gara eta, horrekin batera, haurren lau alor ezberdinetan eragin positiboak sumatu daitezke (Arroyo, 2010; Perez, 2014): musikala, kulturala, kognitiboa eta jarrerazkoa. Gure kasuan, alor horiei beste bi gehituko dizkiogu: fisiologikoa eta sozioafektiboa.

Musikalei begira, abesten dugunean bizipen eta barneratze musikala egiten ari garela kontuan hartu behar dugu. Hortaz, ezagutza musikalaren eraketaren oinarria dela esan genezake (Camara, 2004). Izan ere, zeharka bada ere, barneratze eta memorizazio erritmiko zein melodikoa, forma edota espresio agogikoa zein dinamikoa lantzen dira (Pascual, 2002).

Bestalde, abestea gaitasun psikomotor baten oinarrian dago eta horrek koordinazio fisikoa, pertzepzio psikologikoa eta oroimen-prozesua burutzea suposatzen du (Camara, 2004). Horregatik, haurren osasunari ongizatea dakarkio arnas, immunologia edo zirkulazio sistemei eta baita gorputz-jarrerari ere onurak ekarriz (Perez, 2014).

Alderdi sozioafektiboei dagokienez, aipaturiko azken autoreak dioten bezala, abesbatza baten kide izanik gaitasun inklusiboa lantzen da, haurrak bata besteari laguntzen, itxaroten, gainerako kideei entzuten eta taldearekin batera joaten ikasi behar dutelako. Beraz, giza harremanak eta elkarrenganako kolaborazioa sustatzen ditu (Ferrer, 2009). Gainera, normalean, hurrek euren kabuz aukeraturiko ekintza izaten da, non abeslari bakoitzak bere denbora taldeari, gainerako kideei eta proiektuei eskaintzen dien. Horregatik, parte hartzen duen norbanakoari bere identitatearekin berraurkitzen laguntzen dio, besteen aurrean ahotsaren bidez zabaltzen den bitartean (Camara, 2003). Era berean, ekintza edo proiektu ugari aurrera eramateko baliabidea ere bada eta bertan, hurrez gain, familiek ere parte har dezakete aisialdia jarduera musikal, kultural eta sozial baterako erabiliz (Arroyo, 2010).

Honengatik guztiagatik, kantu korala kohesio sozialerako eta oreka afektiborako tresna dela baieztatu dezakegu, non abeslarien jatorria, egoera, zaletasunak eta ezberdintasunak ez diren aintzat hartzen, helburu bakarra elkarrekin abestea baita (Ferrer, 2011).

Horrez gain, jarrera aldetik, talde koral batean murgiltzen diren ikasleak etengabe diziplina, esfortzua eta konpromisoa lantzen ari dira entsegu bakoitzera doazenean, norberaren jarrerak taldearen lanean eragina duelako. Modu horretan, elkarrenganako zein zuzendariarekiko errespetua lantzen da eta gizarte begirunetsu baten eredurik onena esperimintatzeko aukera ematen die (Ferrer, 2009; Ferrer, 2011).

Bukatzeko, tresna kultural bezala, praktikatzeko duen taldeari duin egiten dio eta euren oinarri kulturala garatzen laguntzen die, ikuspegi anitzagoak zabalduz (Camara, 2004).

Beraz, antzeman ahal izan dugunez, haur abesbatzak hiru hezkuntza motak —formala, informala eta ez-formala— uztartzen dituzten hezkuntza esparru garrantzitsuak dira (Aranguren eta Jimeno, 2009) eta horietarikoren baten parte hartzerakoan, hezkuntzaren lau zutabeak (Delors, 1996) garatu daitezke. Batetik, abesten duten bitartean beraien ahotsa eta besteena ezagutzeko doaz (*ezagutzen ikasi*). Aldi berean, ahotsaren erabilera egokia egiten ikasten dute, bai hitz egiteko zein abesteko. Horregatik, *egiten ikasten* dute. Bestetik, ingurukoekin komunikatzeko eta helburu bera kolaborazioaren bidez lortzeko aukera eskaintzen du (*elkarrekin bizitzen ikasi*). Amaitzeko, ikusi dugun bezala, abesteak indibiduo bakoitzaren izaera eta aspektu psikologikoak ere indartzen ditu. Hori dela eta, *izaten ikasten* laguntzen gaitu (Ferrer, 2011).

Hortaz, dakartzan onura guztiak aintzat harturik, pertsona ororen formakuntza integralaren parte izan beharko litzateke hezkuntza sistema orokorraren barruan (Elizasu, 2005).

1.5. Abesbatza Lehen Hezkuntzako curriculumean

236/2015 dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta ezartzen du. Bertan ikus daitezkeenez, kantu koralak hainbat ekarpen egiten dizkio oinarrizko zehar-kompetentziei.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziari dagokionez, abesbatzan parte hartuz gero ikasketa prozesu zehatza sustatzen da. Izan ere, taldean lan egiteko ohiturak

bereganatzen dira eta behin ikasitako estrategiak beste egoera edo testuinguru batzuetan aplikatu daitezke.

Elkarbizitzari erreparatuz, taldeko egoera baten aurrean gaude, non parte hartzaileek elkarrekikotasunez jarduten duten. Hori dela eta, De la Calle Maldonadok (2014) esan bezala, taldean abestuz, ezagutzeko eta elkar balioesteko gaitasuna garatzen da eta, aldi berean, komunitaterako onuragarriak diren erabakiak hartu behar dira norbanako bakoitzaren eta baita taldearen interesak aintzat hartuz. Beraz, beste kide baten tokian jartzeko ahalmena bultzatzen da.

Aurrekoarekin erlazionaturik, abesteak testuinguru anitzetan hitzez edo hitzik gabe komunikatzeko aukera ere ematen digu, besteen ideiak entzun ditzakegun bitartean. Horrez gain, izaten ikasteko konpetentzia garatzen laguntzen digu jarrera fisiko eta emozionalei buruz gogoeta eginez eta, modu horretan, geure izaera hobetuz.

Oinarritzko zehar-konpetentziak alde batera utzita, kantu koralararen bidez bereziki lantzen den diziplina Arte Hezkuntza da, arterako konpetentzia bere baitan hartzen duelarik. Horretan, honako helburuak garatuko lirateke batez ere:

- Kultura-jarduera kolektiboetan arduraz parte hartzea, denek ekimenarekin hain garrantzitsuak diren kooperazio-trebetasunak lantzeko.
- Norberak egindako lanean konfiantza izatea, lanean emandako denboran norberak egindakoaz gozatzea eta horrek guztiak norberaren eta talde osoaren hazkunde pertsonalari eragiten dion ekarpen itzelaz jabetzea.
- Euskal Herriko nahiz beste herrialdeetako kultura-ondareko arte adierazpenak ezagutzea eta balioestea, esperientzia kulturalak duten aberasgarritasunaz ohartuz.
- Arteak eta kultura bisual eta musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta espresatzeko ematen duten aukera ugarietz ohartzea.

2. Metodologia

2.1. Helburu eta hipotesiak

Marko teorikoan aipaturikoak aintzat hartuz, nire ikerketarako zehaztuko ditudan helburuak honakoak dira:

Helburu nagusia:

- Ikasketa zentroek euskal koralismoaren jarraipenean izan dezaketen erabilgarritasuna defendatzea.

Helburu konkretuak:

- Bizkaiko haur abesbatzen mugimenduari buruzko hainbat zuzendariren ikuspegia biltzea egungo egoera ezagutzeko asmoz.
- Bizkaiko haur abesbatzen mugimenduan ikasketa zentroen jarduera txertatzea eta burutzen duten lana azaleratzea.
- Bizkaiko haur abesbatzetan ematen diren zailtasunak aztertzea, horien zergatia ikertuz.
- Haur abesbatzen egoera hobetzeko ideiak proposatzea euskal koralismoaren jarraipen modura.

Ezarritako helburuekin erlazionaturik, hona hemen ikerketa honetarako planteatutako *hipotesiak*:

1. Bizkaiko ikastetxeetan ekintza koraleen eskaintza anitza ez denez, hurrek aukera gutxi dituzte abesbatza batean parte hartzeko.
2. Ikastetxeetan burutzen den jarduera korala eskola eremura mugatzen denez, ez da euskal koralismoaren jarraipentzat hartzen.
3. Abeslari gazte gehienek, adin batetik gora, ekintza korala uzten dute bai eskaintza zein interes ezagatik.
4. Abesbatzetan parte hartzen duten agenteek abesteak dakartzan onurak positiboki baloratzen dituztenez, egungo abesbatzen egoerak bat egin beharko luke jarrera horrekin.

2.2. Diseinua eta prozedura

Egindako ikerketa paradigma kuantitatiboan eta kualitatiboan oinarrituta dago. Izan ere, datuen bilketa gauzatzeaz gain, datu horien interpretazioa eta tratamenduan ere burutu

da. Beraz, ikerketa bi paradigmen barnean koka daiteke, metodo etnografikoa oinarri izanik.

Hain zuzen, etnografiaren jatorria antropologia kulturallean eta soziologia kualitatiboan aurkitzen da. Hortaz, ikerketak izaera hori izanda, haren helburu nagusia testuinguru kultural jakin batean ematen den egoera deskribatzea izango da (Hammersley eta Atkinson, 1994; Valles, 1999; Serra, 2004; Díaz, 2006; Álvarez, 2008).

Gure ikerketa analisi dokumental batean oinarrituta egongo da eta *etnografia online* deritzon horretan, *lurker* rola hartuko dugu, ezkutuko behaketa ez parte-hartzaileak eginez (Hine, 2000; Hine, 2005). Ikerketan, alde batetik, Bizkaiko ikastetxeetan dagoen kantu korralaren eskaintza aztertu eta kuantifikatuko da, jardueraren egoeraren berri izateko. Bestetik, ikastetxeetako zein federatutako abesbatzen emanaldietako *Youtubeko* bideoak aztertuko dira, estrategia ezberdinen bidez jasotako informazioa balioztatu, egiaztatu eta osatzeko asmoz, eta baita errepertorioak Lehen Hezkuntzan duen erabilgarritasuna eta egokitasuna aztertzeko ere. Izatez, bideoetako emanaldietan bildutako datuen artean ondorengoak ditugu: errepertorioaren ezaugarriak, taldearen janzkera, emanaldiaren funtzioa, espazioaren ezaugarriak, abeslarien kokalekua, zuzendariaren jarrera edota mugimendu koreografikoen erabilera.

Bestalde, hezkuntza arloan, ikerketa etnografikoaren xedea aztertzen dugun egoera hori barrutik ezagutzea da. Hori dela eta, kantu koralean diharduten adituen iritziak bildu nahi izan dira galdetegi bat sortuz (Serra, 2004). Hain zuzen ere, abesbatzen zuzendariari galdetegi bat betearazi zaie honako aspektuei buruzko iritzia biltzeko asmoz: haien formakuntza, abesbatzarekin egiten dituzten emanaldi zein entseguak, Bizkaiko Abesbatzen Federazioaren eskaintza eta abesteak dakartzan zeharkako onurak.

Egindako galdera gehienak itxiak izan dira eta orokorrenetik konkretuenera ordenaturik daude inbutu deritzon teknikaren bitartez. Berez, gure lagina kokatu eta klasifikatzeko asmoz, abesbatzaren identifikazio galderekin hasi gara eta horiez gain, Likert eskalan oinarrituriko galderak erabili ditugu, neurri handi batean, inkestatuen jarrera neurtzeko aitorpen batzuen aurrean (De Lara eta Ballesteros, 2001).

Bukatzeko, jasotako datuak eta emaitzak interpretatu ditugu ondorio batzuetara helduz. Gainera, egoeraren hobekuntzarako, proposamen batzuk egin dira epe luzerako.

2.3. Lagina

Ikerketa lan honetan, Bizkaiko haur abesbatzen egungo egoera ezagutzeko, hiru azterketa ezberdin burutu ditugu. Alde batetik, Bizkaiko ikastetxe guztietako (391) web orrietan eskolaz kanpoko ekintzen eskaintzaren inguruan aurkitu dezakegun materiala aztertu eta kuantifikatu dugu. Berau analizatzerako orduan zailtasun ugari izan ditugu, batez ere, ikastetxe askok datu horiek eskuragai ez dituztelako edota inolako web orririk ez dutelako. Horregatik, kasu askotan ikastetxeekin zuzenean telefonoz harremanetan jarri behar izan gara, batez ere, kantu koralarren datuak egiaztatzeko. Beraz, datu horiek gure behaketa eta zenbaketaren bidez eskuratuta daude eta horren ostean, antolatu eta interpretatu egin ditugu.

Beste alde batetik, kantu koralarren egoera barrutik ezagutzeko abesbatzen zuzendarientzako galdetegi bat sortu dugu. Hain zuzen, oraingoan, aurretik azterturiko ikastetxeetako abesbatzez gain, Bizkaiko Abesbatzen Federazioan federatutako haur abesbatzen datuak ere bildu ditugu. Esan beharra dago federatutakoez gain, beste batzuei ere bidali zaiela galdetegia. Hala ere, kasu horietan, abesbatza horiek nahiz eta federatuta ez egon, federatutako helduen beste abesbatza baten harrobia dira. Beraz, guztira, gonbidatutako laginetik (32 abesbatza) 19koa izan da onartutakoen eta ikerketako datuen ekoizleen lagina (Fox, 1981). Ondorengo taulan (1. taula) kolaboratu duten abesbatzak ikus daitezke:

Ars Viva Txiki Abesbatza (G.1)	Izar Argia Abesbatza (Urkitza ikastetxea) (G.12)
Kantalai Abesbatza (G.2)	Gorondagane ikastetxea (G.13)
Tantak Korala (G.3)	Ntra. Sra. de la Merced ikastetxea (G.14)
Seber Altube Korala (G.4)	San Nikolas ikastola (G.15)
Xemeingo Gazte Ahots Abesbatza (G.5)	Escoleia Abesbatza (Calasancio ikastetxea) (G.16)
Izar Argia Abesbatza (G.6)	Lauro ikastola (G.17)
Leioa Kantika Korala (G.7)	El Carmelo ikastetxea (G.18)
Lirain Txiki Abesbatza (G.8)	Kirikiño ikastola (G.19)
Lilura Abesbatza (G.9)	
Biotz Alai Txiki Abesbatza (G.10)	
IAZ- Inmakuladako Ahots Zuriak (G.11)	

1. Taula: Onartutakoen lagina (Fox, 1981)

Azkenik, aipaturiko abesbatzen emanaldiak aztertu dira sareko *Youtube* ataria erabiliz. Horretarako grabaketek ondorengo baldintzak bete behar zituzten:

- Bideoen publikazio data ezin da 2012 baino zaharragoa izan.
- Taldeak berak sarean publikaturiko grabaketei lehentasuna emango zaie. Dena den, beste erabiltzaile batena ere analizatu daiteke gainerako baldintzak aintzat hartzen jarraitzen badugu.
- Ikerketarako publikaturiko grabaketarik berriena hautatuko da eta data bereko bi edo gehiago egotekotan, bisita gehien dituen aukeratuko da.
- Grabaketan abesti bat baino gehiago egotekotan lehenengo agertzen dena aztertuko da.
- Hautatuko abestia osorik agertu behar da.

Aztertutako bideo kopurua 19 izan dira. Horietatik 7 bideo ikastetxeetako abesbatzenak izan dira eta 12 federatutakoenak. Hain zuzen, egindako azterketa eranskinetan ikus daiteke (4. eranskina).

3. Emaitzak eta eztabaida

3.1. Bizkaiko ikastetxeetako webguneen analisia

Aipatu bezala, Bizkaian dauden 391 ikastetxeetako web orrialdeetan egiten den eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza aztertu eta kuantifikatu dugu. Esan beharra dago, lortutako datu gehienak 2016/17 ikasturtekoak direla. Hala ere, webgune batzuen eguneratze ezagatik, kontuan harturiko datu batzuk iazko ikasturtekoak (2015/16) dira, suposatuz oraindik ere ekintza horiek indarrean jarraituko dutela.

Eranskinetan (3. eranskina) antzeman daitekeenez, ekintza musikalen eskaintza ez da oso anitza gainerako kirol eta aisialdi ekintzen eskaintzarekin alderatzen badugu. Gainera, nabarmentzekoa da Bizkaiko ikastetxeetako ia heren batek arrazoi batetik edo besteagatik, ez duela haren eskolaz kanpoko jardueri buruzko informaziorik eskuragai.

Horrez gain, eskaintza musikalaren baitan dagoen jarduera moten aniztasuna 3 taldetan multzokatu dugu eta ikastetxeka dauden konbinazio posibleak irudikatu ditugu diagraman batean. Bertan ikus daitekeenez, eskaintza musikala duten ikastetxeen %57,33k lengoia musikalean oinarrituriko irakaskuntza bultzatzen du, %60a musika tresnen interpretazioan zentratzen da eta %21,33k kantu koralarekin erlazionaturiko

ekintza sustatzen du. Hori dela eta, ekintza koralaren eskaintza txikiena dela baieztatu dezakegu. Bestalde, esan beharra dago musika tresnen eskaintzaren barnean bi motatako instrumentu motak gailentzen direla. Alde batetik, musika tresna polifonikoak (pianoa, gitarra eta akordeoia) dira eskaintzarik handiena dutenak eta horiekin batera euskal musika tresnak ere nabarmentzen dira (trikitixa, panderoa eta txistua).

Kantu koralaren eskaintza hobeto irudikatu ahal izateko, ekintza bera gainerako eskolaz kanpoko ekintza portzentajeekin konparatu dugu. Berrito ere begiztatu daitekeenez, ikastetxeetan egiten den ekintza koralen kopurua oso urria da eta harekin batera ematen den gainerako jardueren eskaintza zabalak, horren aukeraketa are gehiago zailtzen du.

3.2. Bideoen analisia

Arestian aipatu bezala, aukeratutako bideoetan zenbait aspektu behatu dira: errepertorioaren ezaugarriak, taldearen janzkera, emanaldiaren funtzioa, espazioaren ezaugarriak, abeslarien kokalekua, zuzendariaren jarrera eta mugimendu koreografikoen erabilera (5. eranskina). Hala ere, hori egin aurretik abesbatza guztiek *Youtube* plataforman duten parte hartzea aztertu dugu, publikaturiko bideo kopurua kuantifikatuz (4. eranskina).

Grafiko horretan agertzen diren emaitzei erreparatuz, orokorrean esan genezake abesbatzek ez dutela sarean bideo gehiegirik publikatzen. Hain zuzen ere, ikastetxeetako abesbatzen artean 4 dira soilik euren lana moduren batean sarean erakusten dutenak eta federatutako abesbatzen artean ere, 6 baino ez dute zeregin hori burutzen. Beraz, *Internetekiko* erlazioa oso urria dela konprobatu daiteke eta horrek, talde bezala, euren burua ezagutaraztea zailtzen du. Hala ere, badira orokortasun horretatik kanpo dauden taldeak ere. Horien artean Calasancio ikastetxeko Escoleia Abesbatza eta Leioa Kantika Korala ditugu.

Behin hori ikusita, ikus dezagun ikastetxeetako abesbatzen bideoetan behaturiko aspektu ezberdinek orokorrean utzi dizkiguten emaitzak. Taldeko janzkerari dagokionez, kasu askotan haurrak kaleko arroparekin abesten ari dira. Beraz, ez dute inolako uniformerik eta horrek talde kohesioa indartzea zailtzen du. Izan ere, janzkera talde baten identitatearen parte da eta hari esker gazteak estetika zehatza erakutsi eta talde bateko kide gisa ezagutuak dira (Hooft, 2009).

Horrez gain, euren jarduera eskolara mugatuta dagoela ikus daiteke. Izan ere, emanaldi gehienak ikastetxeko tokiren batean edota ikastetxean ospaturiko ekitaldi batentzako burutzen dira. Hain zuzen, aukeraturiko grabaketa guztiak kurtso bukaerako kontzertuak izan daitezkeela suposatu dugu, publikazio datengatik. Hortaz, talde horiek ikastetxean duten funtzio nagusia kulturala dela baieztatu dezakegu, kutsu kulturala duten ospakizunetan parte hartzen baitute. Horrez gain, aipatu beharra dago zentroarekiko mugatze hori ere erreperitorioren batean ikusi ahal izan dugula, eskola materialekin zuzenean erlazionaturik agertu baita.



1. Irudia: Begoñako Andra Mari ikastetxeko abesbatzaren emanaldia



2. Irudia: Bizkaia ikastetxeko abesbatzaren emanaldia

Erreperitorioari dagokionez, eskoletako abesbatzek unisonoan edo bi ahotsetara abestu ohi dute. Normalean, tonalitate maiorrean dauden zailtasun maila gutxiko (A-B) abesti profanoak prestatzen dituzte, emanaldi egunean nolabaiteko akonpainamenduarekin (pianoa, base musikala, musika tresnak) abesteko. Hain zuzen, abesti horiek ingelesez zein euskaraz interpretatzen dituzte, azken hizkuntza horretan eginikoak beste hizkuntza bateko abestien moldaketak izanik.

Abeslarien kokapenari erreparatuz, orokorrean, pertsona kopuru berdintsua duten lerroetan jartzen dira, bloke itxura hartuz. Espazioaren ezaugarrien arabera, altuera desberdinetan edo maila berean kokatzen dira, eta euren artean ez da leku askorik uzten. Horregatik, esan genezake abeslarien kokapena ez dela era egokian espaziora egokitzen. Bestalde, nabarmentzekoa da zuzendariaren irudia gutxitan agertzen dela abesbatzaren aurrealdean zuzendaritzan.

Bestetik, mugimendu koreografikoen erabilera oraindik ere ez dago oso hedatuta. Izan ere, bideoetan koreografia xumeak zein gorputz perkusio urria antzematen baita.

Federatutako abesbatzei dagokienez, behaturiko aspektuekin emaitza oso desberdinak lortu ditugu. Alde batetik, abesbatza hauetan taldeko kide guztiak uniformatuta doaz janzkera zehatz batekin. Gainera, askok euren uniformean taldearen identitatea

erakusten duen sinboloren bat daramate. Beraz, lehenago esan bezala, horrek euren talde kohesioa indartzen du.

Errepertorioari begira, federatutako abesbatzek bi ahots edo gehiagotara abestu ohi dute. Hain zuzen, tonalitate desberdinetan dauden musika lan profano zein erlijiosoak prestatzen dituzte, akonpainamenduarekin edo *a capella* interpretatzeko. Izatez, musika lan horien zailtasun maila eskoletako abesbatzena baino gorago dago (B-C), baina orokorrean maila anitzak topa ditzakegu abesbatza bakoitzaren izaeraren arabera. Halaber, kasu honetan, hizkuntza ugari antzeman daitezke euren errepertorioetan.

Bestetik, egiten dituzten emanaldiak ez dira euren testuingurura mugatzen. Hala ere, egia da behaturiko emanaldi gehienak eliza batean eginda daudela. Beraz, oraindik ere nolabaiteko kutsu erlijioso mantentzen jarraitzen dutela baieztatu ahalko genuke. Dena den, aurrekoena bezala, horien funtzio nagusia kulturala da, mota desberdinetako ospakizun kulturalen (jaiak, Gabonetako kontzertuak, ekitaldi bereziak etab.) parte baitira.

Abeslarien kokapenari erreparatuz, bestean baino aniztasun handiagoa topa daiteke. Pertsona kopuru ezberdineko lerroetan jartzen dira piramide itxura hartuz, zirkuluerdia eginez, posizio irekian edota blokean. Dena den, kasu gehienetan altuera ezberdinetan kokatuta daude denek zuzendaria, abesbatzaren aurrealdean zuzendaritzan diharduena, ikusi ahal izateko.



3. Irudia: Seber Altube Korralaren emanaldia



4. Irudia: Xemeingo Gazte Ahots Abesbatzaren emanaldia

Bukatzeko, ikastetxeetako abesbatzetan gertatzen den bezalaxe, mugimendu koreografikoen erabilera oraindik ere ez dago oso hedatuta. Izan ere, bideo gehienetan ez baita inolako mugimendurik antzematzen.

3.3. Galdeketen analisisa eta interpretazioa

Hurrengo lerroetan, lagin moduan hartutako inkestatuek esandakoa azaltzen eta interpretatzen saiatuko naiz. Bakoitzak esandakoari erreferentzia egiteko, galdeketa

bakoitzari G hizkia eta zenbaki bat jarri diot goiko taulan (1. taula). Informazio gehiago nahi izanez gero, galdeketen emaitzak eranskinetan aurki daitezke (7. eranskina).

Interpretazioa egiterakoan, gauzak argiago ikusteko, jasotako informazioa atalka banatut:

1. Abesbatzen profila

Inkestaturiko abesbatza gehienak (%53) ikastetxe baten parte dira eta horien artean, titulartasunari erreparatzen badiogu, jarduera korala eskaintzen dutenak gehienbat itunpeko ikastetxe erlijioso (%30) zein laikoak (%40) direla konprobatu dezakegu. Era berean, abesbatza ikastetxe batekin erlazionatuta egotekotan, eskolaz kanpoko ekintza korala gisa (%50) edo ekintza musikal gisa (%40) burutzen da. Bestalde, nabarmentzekoak dira ere elkarte kultural bati atxikita dauden taldeak (%21).

Talde horietan normalean 8 eta 14 urte bitarteko gazteak dihardute. Hain zuzen ere, mutilen gabezia antzeman daiteke, gehienak (%75) neskak baitira. Gainera, eranskinetako emaitzetan begiz jo dezakegun bezala, nerabezaro goiztiarretik (14 urte) aurrera, orokorrean, gazteak abesteari uzten diote drastikoki. Izan ere, zuzendariek dioten bezala, oso zaila da hainbeste ekintzekin lehiatzea (G.8 eta G.12), abesbatzen mundua estigma sozialez beterik baitago (G.1) eta askotan aldi baterako ekintzatza baino ez da hartzen gurasoen zein abeslarien partez (G.9). Horrez gain, ekintzak orokorrean eskatzen duen konpromisoa eta ordutegiz kanpoko aparteko lana gazteen parte hartzean eragin negatiboa handia dauka (G.8). Beraz, oso zaila da ziurtatzea haur abesbatzen jarraitasuna (G.9 eta G.12) eta baita egungo abeslarietarako etorkizunean izango duten abesbatzekiko zaletasuna ere (inkestatuen %53ak).

Beste alde batetik, esan beharra dago talde gehienak (%53) ez daudela federatuta eta gurasoek horietan duten parte hartzea orokorrean nulua dela (G.4, G.8, G.14, G.15, G.17 eta G.18). Zerbait egitekotan, zuzendaritza-batzordearen parte dira (G.5) edo emanaldietan kolaboratzen dute garraioarekin edo akonpainamenduarekin (G.1 eta G.11).

2. Entseguak eta emanaldiak

Aipaturiko taldeak astean zehar baten batzen dira ordubetez edo bi ordu baino gutxiagoko entseguak egiteko. Gehienek (%53) lokal propioa daukate eta betiere

baliabide nahikoak dituzte ekintza behar bezala burutzeko. Izatez, azpimarratu beharra dago guztiek, salbuespen barik, pianoa edo teklatura eskuragai dutela lanordua horietan.

Metodologiari begira, partituraren erabilera oso anitza ez denez, gehiengo batek (%53ak) imitazioa erabiltzen du abestien ikaskuntzarako. Bestalde, disfonia edo lengoia nahasmenen bat antzematekotan, jarraitu beharreko prozedura argi daukatela dirudi (G.2, G.7, G.10, G.16)

Emanaldiei erreparatu, abesbatzek orokorrean euren herrian edo ingurukoetan eskaintzen dituzte kontzertuak. Hain zuzen, muga horietatik kanpo emandako emanaldien portzentaje baxuek, %15a EAEn eta %10a estatu mailan, agerian uzten dute taldeak euren testuinguru hurbilera mugatzen direla.

Emanaldi horietan, gehienbat, bi ahotsetara abestu ohi dute eta betiere kantuararekin batera pianoa, perkusioa edota oinarri musikalen (G.1, G.2, G.3, G.5, G.7, G.8, G.9, G.10, G.11, G.12, G.14, G.15, G.16, G.18, G.19) presentzia agertzen da akonpainamendu gisa, bideoen analisiaren emaitzekin bat etorritik. Errepertorioan, hain zuzen, euskal folklorea, haur kantak eta musika etnikoa gailentzen dira.

3. Zuzendarien profila

Berriro ere gizonezkoen kopuru baxuak (%21) deitzen digu arreta. Beraz, ikus daitekeenez, zuzendaritza korala emakumez bultzaturiko alorra da. Zuzendari gehienak (%89) abeslariak izan dira zuzentzen hasi aurretik abesbatza misto, ahots zurien abesbatza batean edota gaztetan haur abesbatza batean; eta euren formakuntza, orokorrean, ez da oso espezifikoa federazioek antolaturiko zuzendaritza ikastaroetan oinarritzen baita.

4. Erakundeak

Nahiz eta abesbatza gehienak federatuta ez egon, Bizkaiko Abesbatzen Federazioak duen eskaintza ezaguna da zuzendarien %84arentzat. Hala ere, harekiko duten iritzia ez da oso positiboa. Izan ere, portzentaje handi batek (%44) kolokan jartzen du erakundeak egiten duen haur abesbatzen sustapena, planteatzen dituen jarduerak haurrentzako erakargarriak eta motibagarriak ez izateagatik. Gainera, zuzendarientzako eskaintzen den formakuntza ere ez da oso zabala.

Hori dela eta, zuzendariak ondo deritzote federazioak oinarritzko hezkuntza zentroetan haur abesbatzen sorkuntza bultzatzeari. Halaber, ospea duten zuzendariarekin antolaturiko

haur eta gazteen topaketak nabarmentzen dituzte mantendu beharreko proposamen gisa (G.2, G.3, G.7, G.8 eta G.10). Horrez gain, hobekuntzarako gainerako proposamenen artean erreperitorio berri baten sorkuntza bultzatzea ere gailentzen da (G.3, G.6 eta G.7).

5. *Kantuaren balio gehigarriak*

%68ak aurrera eramandako bere lanaren bidez euskal koralismoari mesede egiten diola uste du, kultura eta ohituren jarraipena harekin batera sustatuz eta haurtzarorako aktibitate kulturalak bermatuz (%74). Hala ere, jarrera horrekin kontrajarriz, emaitzak azaleratzen duten moduan %31ak ez du bere lana haur abesbatzen mugimenduaren parte bezala ikusten eta esan beharra dago iritzi hori dutenak, gehienbat, ikastetxeetako abesbatzen zuzendariak direla.

Bestetik, nahiz eta planteatutako ekintza koralek garapen sozioafektiboa, pertsonala eta kulturala sustatzen dutela uste izan (%84) eta tolerantzia, ardura, berdintasun, diziplina eta errespetuzko balioak oinarri dituztela jakinik (%89), inguruko jarrera ez dator bat horrekin. Izan ere, zuzendarien %58ak baino ez du uste euren inguruan diharduten profesionalek haurtzarorako jarduera positibotzat dutela; %42ak zalantzan jartzen du gurasoen iritzi aberasgarria ekintzarekiko eta %32ak ez du uste abeslariak kontziente direnik kantuak dakarkien onurei buruz. Horregatik, aipatu bezala, zaila da gaur egungo abeslarien jarraitasuna bermatzea abesbatzaren inguruan diharduten agenteen jarrerak hain zalantzatiak badira.

3.4. Hipotesien inguruko eztabaida

Nahiz eta galdeketako emaitzetan abesbatza gehienak ikastetxeetakoak izan, hasieran buruturiko Bizkaiko ikastetxeetako webguneen analisiaren bidez, probintzia horretako hezkuntza zentroetan ematen den ekintza koralararen eskaintza oso urria dela konprobatu ahal izan dugu. Hori dela eta, haurrak aukera gutxi dituzte abesbatza batean parte hartzeko euren ikastegietan. Beraz, planteatutako 1. hipotesia bete dela esan dezakegu.

Horrez gain, *Youtubeko* abesbatzen emanaldien analisiak utzitako emaitzen arabera eta baita galdeketako emaitzen *entsegu eta emanaldi* atalean ikusi ahal izan dugunez, orokorrean, abesbatzen jarduera euren testuinguru hurbilera mugatzen da eta ikastetxeetako ekintza koralararen kasuan, bereziki, mugatze hori deigarriagoa da eskolan soilik zentratzen baita. Gainera, ikastetxeetako jarduerak euskal koralismoari mesede egiten diola uste arren, abesbatza horien zuzendariak ez dute haien lana euskal haur

abesbatzen mugimendutzat hartzen. Hortaz, hein handi batean 2. hipotesia ere bete dela baieztatu dezakegu.

Bestalde, galdeketako emaitzen analisisian konprobatu dugunez, orokorrean nerabezaroko adin batetik aurrera gazteak abesteari uzten diote beste ekintza batzuen lehian abesbatza galtzaile ateratzen delako edota jarduerak eskatzen duen konpromisoa gazteentzat erakargarria ez delako. Hori dela eta, ezin dezakegu esan planteatutako 3. hipotesia guztiz bete denik.

Azkenik, 4. hipotesia ez da bete. Izan ere, zuzendarien arabera abesbatzen inguruan diharduten agente desberdinek ez dituzte kantu koralarren onurak behar bezala baloratzen. Horregatik, eta beste hainbat arrazoiengatik, jarduera kaltetuta ateratzen ari da bere egoera gutxiagotze progresibo batean sartuz.

4. Ondorioak eta prospektiba

Burututako ikerketa lan honetatik honako ondorioak atera daitezke:

- Kantu korala errotze handiko arloa izanik euskal kulturaren eta ekarpen onuragarriak ekarri praktikatzen duten norbanakoei, desagertzen utzi behar ez den ohitura osasungarri, sozial eta kulturala da. Hori dela eta, haren erlazioa eta zailtasuna txikitatik bultzatu behar da gazteen eskura dauden ekintzak eskainiz.
- Haur abesbatzen jarraipenaren arrakasta hezkuntza zentro formalen eta erakunde ez-formalen artean topatzen dugu (Ibarretxe eta Díaz, 2008). Izatez, eskola, haur guztien eskura egonik, baliabide edo espaziorik aproposena da abesbatzen mugimendua sustatzeko. Horregatik, kantu koralarrekin erlazio naturiko jarduerak planteatu eta bultzatu beharko lirateke Oinarrizko Hezkuntza zentroetan, bai eskola orduetan zein ordutegi horretatik kanpo.
- Lanean ikusi ahal izan dugunez, ikastetxeetan kantu korala lantzea onuragarria da ikasleek garapen integrala bultzatzen duelako. Gainera, curriculumak ezartzen dituen hainbat oinarrizko zehar-kompetentzia garatzen laguntzen du eta horien baitan dagoen arterako kompetentziari, batez ere, ekarpen ugari egiten dizkio.
- Haur abesbatzen mugimenduari mesede eginez diharduten hainbat talde daude baina horien egoera, gehienbat eskoletakoa, isolatua da. Hain zuzen, euren

jarduera aurrera daramate bestelako taldeekin inolako kontakturik izan gabe. Beraz, isolamendu horrek abesbatzen mundua arrotz bihurtzen du, harekiko zaletasuna zailduz. Hori dela medio, Bizkaiko Abesbatzen Federazioak, erakunde gorenena izanik, talde horien harremana bultzatzen duten ekintzak eta abesbatza berrien sorkuntza sustatzen duten proposamenak martxan jarri beharko lituzke.

- Haur abesbatzen mugimenduak aurrera jarrai dezan eta haren hobekuntza bermatzeko ezinbestekoa da arlo horren inguruan diharduten agente (zuzendariak, abeslariak, gurasoak etab.) guztien kontzientziazioa eta inplikazioa.
- *Youtubeko* bideoen azterketaren arabera, abesbatzek orokorrean sarean eskegitzen dituzten bideoen kopurua oraindik ere eskasa dela esan genezake, salbuespen batzuk alde batera utzita. Hortaz, horien presentzia hain urria dela ikusita, hedatu gabeko fenomenotzat har daiteke. Hala ere, etorkizunera begira, gazteak abesbatzen mundura hurbiltzeko tresna paregabea izan ahalko litzateke bestelako sare sozialekin eta web orrialdeekin batera.
- Beste alor batzuetan gertatzen ari den bezala, ikus-entzunezkoen ondorioz estetika berriak sortzen ari dira. Hain zuzen, mugimendu koralak ere horien eragina pairatu du, ahotsarekin batera irudiak garrantzia hartuz.

4.1. Etorkizunerako proposamenak

Behin ikerketa honetako emaitzak eta ondorioak aterata, etorkizuneko haur abesbatzen mugimendurako aberasgarriak izan daitezkeen proposamen batzuk planteatuko ditut Oinarrizko Hezkuntzatik abiatuz:

- Federazioak abesbatzentzako sorkuntza plan bat proposatu beharko luke Lehen Hezkuntzako irakasleak euren zentroetan abesbatza bat sortzera motibatuz. Bertan, zuzendari berrientzako formakuntza eskaini ahalko litzateke bloke ezberdinen antolaturik (errepertorioa, zuzendaritza teknika, ahots teknika, metodologia, lan dinamikak etab.). Alde batetik, abesbatzen munduan esperientzia duten hizlariekin saio batzuk burutu ahalko lirateke aipaturiko bloke ezberdinetako edukiak jorrazteko. Beste alde batetik, zuzendari hasi berriek gela praktikoak proposatu beharko lituzkete, ondoren euren taldeekin praktikan jartzeko. Modu horretan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu oso aberasgarria sortuko litzateke zuzendarien artean.

- Aipaturiko abesbatzen isolamendu hori gutxitzeko asmoz, beste herrialde batzuetan egiten den bezala, talde ezberdinen arteko kolaborazio proiektuak sustatu ahalko lirateke eremu formaleko zein eremu ez-formaleko abesbatzen parte hartzearekin. Esaterako, Frantzian ohikoa da bi eremuetako abesbatzen artean (ikastetxeetako abesbatzak eta eremu ez-formalekoak) hezkuntza proiektuak antolatzea. Britainia Handian, aldiz, federazioak animatzaileak bidaltzen ditu hezkuntza zentroetara eskolarteko kontzertuak prestatzeko (Ibarretxe eta Díaz, 2008).
- Arestian izendaturiko abesbatza gipuzkoarren eta arabarraren funtzionamendua (Ibarretxe, 2007) eredu gisa hartu beharko litzateke. Izan ere, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko harreman arrakastatsuen adibide paregabea dira.
- Abesbatzen federazioaren eta ikastetxeetako musika irakasleen arteko kooperazioa sustatu beharko litzateke jada indarrean dauden ereduak oinarri gisa hartuz. Modu horretan, material eta baliabide bereziak sortu ahalko lirateke eskoletan erabili ahal izateko (EMC, 2004).

Erreferentzia bibliografikoak

- Álvarez Álvarez, C. (2008). La etnografía como modelo de investigación en educación. *Gazeta de antropología*, 24 (1). Kontsultatuta in: <http://hdl.handle.net/10481/6998> [2017, martxoaren 12an].
- Aranguren, A.I. eta Jimeno, M. (2009). Los coros infantiles como contextos de aprendizaje y su proyección sociocultural. *Eufonía: Didáctica de la música*, 45, 19-29.
- Arroyo Ramírez, J.A. (2010). El coro escolar. *PublicacionesDidacticas*, 8, 84-86.
- Bagüés i Erriondo, J. (1993). La música coral entre los vascos: una tradición vigente. *Cuenta y razón*, 84, 68-74.
- Camara Izagirre, A. (2003). El canto colectivo en la escuela: una vía para la socialización y el bienestar personal. *Revista de psicodidáctica*, 15-16, 105-110.
- Camara Izagirre, A. (2004). La actividad de cantar en la escuela: una práctica en desuso. *Revista de psicodidáctica*, 17, 75-84.
- Carbonell i Guberna, J. (2003). Aportaciones al estudio de la sociabilidad coral en la España contemporánea. *Hispania*, 63 (214), 485-504.
- De Lara Guijarro, E. eta Ballesteros Velázquez, B. (2001). *Métodos de investigación en educación social*. Madrid: UNED.
- De la Calle Maldonado de Guevara, M.L. (2014). *La participación en coros escolares como desarrollo de la motivación para cantar en la educación primaria y secundaria* (tesis doctoral). Universidad Complutense, Madrid.
- De las Cuevas, C. (2009). La cantera de los coros vascos: una formación vocal específica. *Eufonía: Didáctica de la música*, 45, 39-49.
- Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Madrid: Santillana.
